



ONDARROAKO UDALA

KULTURA BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

Bilera-zenbakia: 2017/5
Eguna: 2017-09-19
Ordua: 18:00
Tokia: Udaletxea. Bigarren pisuko aretoa

Bertaratuak

Iñaki Lersundi, kultura batzordeburua eta Bertsutan Elkarteko ordezkaria
Gotzon Iparragirre, Apre Kultur Elkarteko ordezkaria
Miren Urresti, Arranondo elkarteko ordezkaria
Nagore Alegria, Artelan Kultur Elkarteko ordezkaria
Maitane Uribe, Dantzarte Elkarteko ordezkaria
Andoni Urkiza, Kresala Kultur Elkarteko eta Kafatezeko txostenako ordezkaria
Jesus Maria Egaña, Herriko Txistulari taldeko ordezkaria
Mikel Santiso, Koadrila eguneko antolatzaileen ordezkaria
Gorka Basterretxea (Txirimorraski ODLTko ordezkaria)
Jose Ramon Osa Etxaburu, batzordeko idazkaria

Bertaratu ez direnak

E.A.J.ko ordezkaria
Abantin Guraso Elkarteko ordezkaria
Akordeoi Taldeko ordezkaria
Alde Zaharreko tabernarien ordezkaria
Allarte Elkarteko ordezkaria
Amnistiaren Aldeko Mugimenduko ordezkaria
Argazkilari Elkarteko ordezkaria
Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria
Asoc. Senegaleses Pueblao de Bassoul
Astilleru Itsasontzi Modelismo Elkarteko ordezkaria
Aurrera Geuria Txirrindu Elkarteko ordezkaria
Aurrera K.T. / C.D. Aurrerako ordezkaria
Dzanga Jaixetan Elkarteko ordezkaria
Casa de Galiciako ordezkaria
Egungentia Koop. E.ko ordezkaria
Gorozikako Jai Batzordeko ordezkaria
Iparra Guraso Elkarteko ordezkaria
Jazz/Dantza taldeko ordezkaria
Kamifazpiko Jai Batzordeko ordezkaria
Kantaize orfeoiko ordezkaria
Luterl Taldeko ordezkaria
Olee Kultur Elkarteko ordezkaria
Ondarroako Historia Zaleak Elkarteko ordezkaria
Ondarroako Metal taldeko ordezkaria
Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria
Ondarroa Atletismo Taldeko ordezkaria
Radixu Irratiko ordezkaria
Tram&Brix Antzerki Taldeko ordezkaria
Txirimorraski ODLTko ordezkaria



ONDARROAKO UDALA

Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Txosna batzordeko ordezkaria
Unanue Kamara Koraleko ordezkaria
Zatozteko ordezkaria

Aztergaia

1. Andra Mari jaiak

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Andra Mari jaien balorazioa

- Ondorengoak esan ditu kultura batzordeburuak:
 - Eskerrak eman dizkie jaietan parte hartu duten guztiei.
 - Bilduko balorazioa nahiko ona dela, koadrila eguna finkatzen doala, gazteen programazioa gehitu egin behar dela eta kukaña eta antzarrak galtzen doazela (6 partaide nagusien kukañan). Orokorrean balorazio positiboa egin dutela. Eraso sexistarik ez dela egon (ez dela denuntziarik egon behintzat). Hau ere positiboa dela.
- Urtetako jokoei buruz eztabaidatu da ondoren.
- Artelaneko ordezkariak galdetu du ea zer gertatu zen nagusien kukañan egon zen aurkezlearekin, Leketxarra ematen zuela eta. Batzordeburuak erantzun dio inor ez zela prestatu nagusien kukaña eta zubitik saltoak antolatzeke eta soinu ekipoa ipini zuena (leketxar bat) prestatu zela aurkezle lanak egiteko.
- Batzorde buruak eskatu die bildutakoei euren iritziak emateko.
- Koadrila eguneko antolatzaileen ordezkariak zera esan du: Koadrila eguneko balorazio positiboa egiten dutela. Bazkarian jende gutxiago egon zela. Jende gehiago dagoela animatzen kalejirarako baina betitoak joan zirela kalejiran.
Eztabaida bat izan da kalejira tabernen aurrealdean para egiten zelako. Koadrila eguneko antolatzaileen ordezkariak esan du tabernekin diruz laguntzen dietela eta horren ordain, tabernen aurrean geratu egin behar izaten direla.
Batzordeburuak esan du, kalejirari garrantzi gehiago eman behar dela, tabernariei kasu gutxiago eginez.
- Kresala Kultur Elkarteko eta Kafeatzeko txosnetako ordezkariak zera esan du:
 - Kafeatzeko egitaraua oso ondo joan zela. Finkatu egin direla berbenen saioak, tokiak edozertarako ematen duela... ikusten egoteko, dantzatzeko, ...
 - Tanborradari dagokionez ia 200 partaide izan zirela eta ordu bete eta berrogei minutu iraun zuela.
 - Kortxeleko Mamuei buruz, ondo joan zirela, bolandera gutxiago bota dituztela aurrean, beheruzkoan jendea jotzeko beldurragatik.
 - Erromeria dela eta, estankatzen doala, geroago eta jende gutxiago izan baitzen. 41 partaide Larrain dantza egiten.
 - Orokorrean, jai lasiak izan direla, egunez jende asko, nahiko kanpotar eta umeen atxikia ipinita herritar asko kanpora joaten dela jaietan.
- Artelan Elkarteko ordezkariak zera esan du:



ONDARROAKO UDALA

- Pasan urtean baino ume gehiago izan zirela Txokolatada eta buruhandien ekintzan; 300 bat ume. Nabari dela, ekintza hau umeen kukañaren ordu berean egiten denean ume gehiago erakartzen dituela.
- Abuztuaren 15eko eta 17ko kalejirak ondo joan zirela baina arazo bat izan zutela 15eko kalejiran; Antiguako Ama kalean arazoak izan zituztela kotxeen trafikoarekin, udaltzainak ez zirelako egon. Udaltzainen zerbitzua ea eskatu egin behar den galdetu du. Euren kalejiretarako Udalak kontratatzen duen txaranga, beti berdina izatea, eskertzen dutela.
- Abuztuaren 15ean eta 17an Zaharren Egoitzara joan zirela eta pozik jartzen direla bertakoak.
- Arranondo Alkarteko ordezkariak zera esan du:
 - Ondo joan zela marmitako lehiaketa. Eguraldia ere ona eta 26 partaide apuntatu zirela. Emakumeen partaidetza handitzen doala. Arazo batzuk izan zituztela Udalaren soinu ekipoarekin, bafle bat ez zebilelako eta alargadorik ez zegoelako. Edozelan ere, balorazio positiboa egiten dutela.
- Herriko Txistulari taldearen ordezkariak esan du ondo joan zirela euren kalejirak.
- Dantzarreko ordezkaria ez da gustora azaldu, Udalak aurten dantza emanaldirako egindako aldaketekin; Ekintza bi bata bestearen atzetik ipintzeak, entsegua egiteko astirik ere ez zirela eman, bakarrik 325 aulki inguru ipini zirela Udalak aulki gehiago izanarren, Udalak kontratatu zuen argi ekipoa oso pobrea zela eta ez zela egokia euren ekintzarako, ... Batzordeburuak esan du 1.500€ ordaintzea dantza emanaldirako ekipoak ipintzeko gehiegi iruditu zaiola eta frogatzea egin nahi zuela ekipo txikiago batekin. Baina ikusten denez ez zela ekipo egokia eta kontutan izango duela datorren urterako.
- Txirimorraski ODLTko ordezkariak esan euren taldeak ez duela parte hartzen jaietan eta horren zergatia nahi dutela aztertu eta landu taldean.
- Apre Kultur Elkarteko ordezkariak zera esan du: Santa Klara eguna dela eta gustu gazi-gozoa geratu zaizkiela, aspaldiko partaidetza gutxienean izan baitzuten egunez. Umeen mendi martxan 12 partaide izan zirela eta nagusienean beste 12. Bazkarian 30 nagusi eta 15 bat ume izan zirela. Tirolina ez zela egin arazo teknikoak izan zituelako. Gauean jende gehiago hurbildu zela Pettiren kontzertura (50 lagun edo) eta kontzertua brutala izan zela. Mus txapelketan 8 bikotek parte hartu zutela. Aztertu egin behar dutela zergatik izan duten jenderen beherakada.
- Batzordeburuak esan du Bertsolarien bertso-poteo saio ez zela egin, nahi beste bertsolari ez zirelako batu.
- Txistulari taldearen ordezkariak esan du Mutrikuko musika bandaren kontzertua aurreratu egin behar dela, 13:30 berandu dela eta.
- Orokorrean komentatu dute su artifizialekin denak gustora geratu zirela ... futbolin erraldoia eta pala – sartagin txapelketa ez zirela egin. Gazte batzuk hurbildu zirela frontoira parte hartzeko asmoekin baina einor ez zegoela frontoian ... baltsa jeitsierarik ere ez zela egin ... 15eko kontzertua ondo egon zela, 16koa ere ondo eta 17koa, ondo egonarren, motza izan zela ... Hara taldeak ezin izan zuela kontzerturik eman, partaide baten ezintasuna dela eta ... eta Itzalak taldearen kontzertua Itsasurreko karpan egin zela euria egiteko arriskua zegoelako.

Amaitzeko batzordeburuak esan du kultura batzordearen hurrengo bilera urriaren 3an izango dela aztergai bakarrez: Guzur Etxeko araudia lantzea.



ONDARROAKO UDALA

Beste barik, bilera amaitutzat eman du batzordeburuak.


Jose Ramon Osa Etxaburu
Idazkaria




O.e.
Iñaki Lersundi Arrizabalaga
Kultura batzordeburua